

Esperientziak



ZUTABE: «ESPERIENTZIAK» saila.

Hizkuntz irakaskuntzako esperientziak eta ideiak elkartrukatzeko leku izan nahi du sail honek; hori bait litzateke, izan ere, euskararen irakaskuntzan gure teknikak hobetzeko inspirazio-bide ezin hobea. Arduradunok, beraz, dei zabala egiten dizuegu lan honetan ari zareten guztioi, zeuen ihardunean aurkitu dituzuen ideia eta burutazio emankor guztiak, hitz gutxitan bederen, azal ditzazuen. Ez dugu ideia horien atzean egon daitekeen teoria lantzerik eskatzen, ez bait da akademikoa sail honen orientazioa.

IDAZLANA HOBEKUNTZ MAILAN

Goiherriko Euskal Eskolako programaketako Hobekuntza HABEren 8. Urratsari dagokiona da gutxi gorabehera. Esan nahi baita, Hobekuntzako euskal ikaslea 900/1.000 ikastorduen inguruan dabilena dena.

Maila horretan jadanik, idazlantxo aski politak egiteko gai da ikaslea. Horiek horrela, eta ikuspuntzat Ikastaro Trinkoak hartuz (egunean 5 ikastordu eta 2^{1/2} ordu ariketa idatzi), astean bost ikastordu hartu ohi dira aipatu Goiherriko Euskal Eskolan idazlana eman eta zuzentzeko, eta gutxienez beste horrenbeste ordu eskatzen zaio ikasleari idazlana borobildu eta mamitzeko.

Horiek horrela, idazlan hori ematea eta zuzentzea nola burutzen duan adierazi nahi nuke lerrootan.

Esan behar da, ordea, lehenik, idazlanaren zailtasuna ez datorkiola gure ikasleari hizkuntza urri samar ezagutzetik bakarrik. Alde batetik, gure ikasleagoak –ehuneko gehien-gehiengoan– jende eskolatua, are ikasketa akademikoduna, izanagatik, idazlanak egiteko zailtasun handia izan ohi du. Bestetik, bereziki euskal kulturakotzat jo genitzakeen gaiak ez ditu gehiegi ezagutzen; are gutxiago bizi. Hirugarren, egungo gizartean ageri diren eta ikasleak ere bere larruan bizi dituen arazoak asko aipatzen ditu ahozko mintzaceran; baina beroietaz zerbait irakurri oso gutxi egiten du, eta gutxiago, idatzi; erdaraz esan nahi da, noski.

Hala, gure ikasle horrek zailtasun handia du itxurazko idazlanak taxutzeko erdaraz ere. Eta horrek asko baldintzatzen eta mugatzen du, euskararen ezagutza aparte utzirik, irakaslearen lana, bai idazlanerako gaia ematean, bai egindako lana zuzentzean.

Beraz, irakasleak ez du aski, euskarazko erruak zuzentzearekin. Erredakzio-arautxo batzu ere landu beharrean aurkitzen da.

1. IDAZLANERAKO GAIA EMATEA

Oso zail egiten zaio ikasleari, aipatu mailan, gai bat eman eta, besterik gabe, hura garatzea.

Askoz errazagoa zaio gai batez testu bat irakasleak irakurri, eta haren laburpena egitea. Honetaz ere, ordea, kontuan hartu behar da, entzumena maila oso apalean duela landua oraino: esaldi luze eta erdi-korapilotsurik jaso ezinik dabil artean.

Baina, zailtasunak zailtasun, nik behintzat, eta entzumenari dagokionez, sakon samar murgil egin erazten diet testu zail samarretan. Bestela, hain zuzen ere, euskara hibrido eta laboratorikiokoan uzteko arriskuan ginatke. Haseran, testu horiek ulerterazteko haruntz-honuntz asko egin behar ditu irakasleak. Baina laster hasten zara fruitu ederrik ikusten.

Jakina, zailtasun guztiak batera ez metatzeko, hobe gai konketuak erabilteza; ezin erabili ba gai kontzeptualak. Esaterako, interesgarritzat jotzen dut, ikaslea, ahalik lehenen, bertsolarien munduan sarteratzea, edota Euskal Herriko

historiari dagozkion pasadizoez jaberaztea. Tarteka-marteka, ondo etorri ohi zaie gai baten titulu hutsa ematea ere. Irudimena bizikiago lantzeko bidean jartzen dituzu horrela, eta ez da lan txikia horrelakorik lortzea.

Jakina, ez da beharrezko pasarte oso-oso bat irakurtzea, bide hori hartzen duzunean; askotan ezinezkoa ere gertatzen da hori. Arazoa ez da gai batetaz azalpen bete-betekoa egitea. Zera dut bilatzen: ideia batzu eman ikasleari, eta horiekin molda dezala nola-halako lan «logiko» bat.

Halatan, beraz, honelakoak izaten dira maila horretan ematen dizkiedan idazlanak:

- Bertsolari batetaz 20/30 lerro irakurri beraiek (ikasleek) ideia batzu hartzen dituzten bitartean.
- Edota pasadizo historiko bat edo geografiko bat: Euskal Herriko herriren baten geografia edo historiaz...

Beti ere buruan helburuok ditudalarik:

- a) Euskaraz idazlantxo arrunt bat taxuz moldatzeko hasi-masiak egin eraztera bultzatzea: ortografia egokiz, egitura ximpleak egoki erabiliz, lana egoki samar lotua eginez. Egitura ximpleak erabiliz diot; izan ere, entzumenari eta ulermenari (ezagutza pasiboari) dagokionez egitura konplexuagoetan murgil erazten badut ere, erabilerari (ezagutza aktiboari) dagokionez patxaratsuago jokatu beharrean gertatzen naiz.
- b) Idazlanerako gaia ikasleei irakurtzean, aurreraxeago jo behar dela uste dut. Alde guztietik, baikorrago ikusten dut hau: hizkuntzaren mare magnum delakoa une jakin batetarako utzi ordez, piskana barruntarazten diozu ikasleari.
- c) Euskal munduari dagozkion gaiak behin eta berriz erabiliz, bestela lortuko ez lukeen euskal kulturaren sarterazten duzu ikaslea, ustekabea eta oharkabea. Egia da, bai, norbaitek esana: jende asko gaur egun, zorioneko titulutisa dela eta, euskara eta euskal kultura zipitzik ere axola ez zaiola hasten da euskara ikasten; baina, gehiengoa, euskara eta euskal kultura bihotzez maite dituela, atera ohi da euskaltegitik.

2. IDAZLANAREN ZUZENKETA

Itxurazko idazlan bat moldatzeko gai izatea prozesu luze baten ondorioa da. Jakin behar da, gure ikasleari, Hobekuntza mailaren ondoren, EGA mailako ikastaroak gelditzen zaizkiola: lau hilabetetan larehun ikastordu edo. Halatan, zuzenketari dagokionez, lehenetasunak markatu beharrean aurkitzen gara; ezin eska dakiokoe alderdi guztietatik zuzen-zuzena litzatekeen idazlanik.

Bestalde, zuzenketak nola egin dago jokuan.

Biok aipatutako ditut, beraz, segidan:

1. Zeri eman lehenetasuna idazlanaren zuzentasunean.
2. Nola burutu zuzenketak.

2.1. Zeri eman lehenetasuna idazlanaren zuzentasunean

Lehenik, zer hartu kontutan idazlana zuzen samartzat emateko. Honako hauek hartzen ditut kontutan:

- Ortografia.
- Puntuazioa: puntuak, puntu eta komak, komak, parrafo-bereizketa, e.a.

- Egitura gramatikalak; maila honetan gehien azpimarratzekoak, honako hauek izan ohi dira:
 - ergatiboa,
 - zehar galdera,
 - a mugizkidun izen-sintagmak; adibidez: hau ez da metodo euskara ikasteko,
 - genitibo posesiboaren eta lekukoaren nahasketa,
 - izen-sintagmaren eta aditzaren arteko komunztadura,
 - konpletiboa,
 - nominalizazioa,
 - e.a.
- Lexiko-aberastasuna:
 - herrikoitasuna,
 - epiteto-egokitasuna,
 - hitz konposatuaren erabilera.
- Jiro edo itzuli-jatortasuna:
 - subjuntiboa erabiltzeko maniaren ordeztu aditz nominalizatua erabiltzea: «joan nadin esan dit amak» ordeztu «joateko esan dit amak»;
 - aditz jokatuazko itzulia erabili ordeztu aditz jokatu gabearena: «menditik etorri zenean» ordeztu «menditik etortzean»;
 - hitz batean, hizketaren akademizismoaren eta laborategi-kutsuaren ordeztu, herri-kutsuari dariona.
- Esaldi koordinatuak eta subordinatuak; haseran esaldi koordinatuak erabiltzera bultzatzea.
- Idazlanaren edukiari dagokionez, berorren logikotasuna edo barne-lotura:
 - sarreratxoa edo aurkezpena,
 - idazlanaren gorputza: bizpahiru puntutan,
 - konklusiotxoa.

Horiek horrela, aipatzen ari naizen maila honetan, Hobekuntza mailan alegia, gutxieneko bat lortzera jotzen dut:

- ortografia egoki samarra,
- puntuazioari dagokionez, lehen bideratzea,
- egiturei buruz zuzentasun handi samarra (pentsatuz, lan honi azkeneraino eutsi beharko zaiola zorrotz),
- lexikoari dagokionez, arintxeago jokatzeko dut,
- jiro eta adierazpen-itzulie buruz, zertxobait saiatzen naiz,
- batipat esaldi koordinatuak erabiltzera bultzatzen ditut; halere, zehargalderak, konpletibo eta erlatibo erraz batzuek erabiliz,
- idazlanaren edukiari, hasera honetan, ezer gutxi begiratzen diot; noiz behinka, halere, gogaeta batzuek ezin baztertu.

Hitz batean, zera hartzen dut kontutan: papila hartzetik janari mardula hartzera ezin pasa daitekeela bat kolpetik. Hain zuzen ere, gerta ohi da zenbait ikaslerekin, Hobekuntzara iristean, bere burua itsaso zabal-zabalean galdurik ikusten duela; orduarte, egitura mailaketari eta besteri pausoka jarraituz neurri juxtuko jantzia ibili izan da euskara ikasten, baina Hobekuntzara iristean, horizonte zabal-zabaleko lautada handian galdurik ikusten du bere burua: irakurgai sakonak eta konplexuak, egitura bihurrienak, idazlanari bete-betean ekin beharra... Hitz batean, irakasleak kontu piskat hartzen ez badu, ikaslea mugarik gabeko hizkuntzaren korapilo-sarean galdurik ikusiko du. Beraz, nahiz eta Hobe-

kuntza maila formalki eta sistematikoki mugaturik ez egon –eta, agian, oso zaila da hori egitea– irakasle trebatuak jakin behar du, zedarrri eta zuhin batzu jarriz, begi aurrean duen ikasle-taldeari hizkuntz soineko hori neurrira ebakitzen.

2.2. Zuzenketak nola egin

Pentsatu behar da, ikasle-taldea homogeneo samarra dela; beraz, akats berditsuak egiten dituztela.

Hori kontutan harturik, bi era nagusi erabili izan ditut:

- a) Ikasle guztien idazlanetan agertzen diren akatsik nagusienak bildu folio batean edo bitan, eta ariketa analitiko bezala landu ikasgelan. Honek badu bere alde txarra, haundi samarra ene iduriko: idazlaneko akatsak testuingurutik kapo ikusten dituela ikasleak, hau da, globaltasunik gabe lantzen dela gutia. Bide hau, tarteka-marteka erabiltzen ahal bada ere, ez da egunero erabiltzekoa.
- b) Irakasleak ikasgelaz kanpo zuzendu idazlanak, eta ikasgelan komentatu akatsak. Bide honek ikasleek ikasgelan pasibotasunera eragiteko arriskua izan lezake. Hori alboratzeko, akats bati buruz ariketak egiten ditut ikasgelan. zenbait ikasleri gai bereko eta ahozko ariketak egin eraziz. Eman dezagun egiturari dagokion akats hau datorrela ikasle baten idazlanean: «aita amari gona gorria erosi dionean diru asko gastatu du». Antzeko akatsa duten esaldiak jarriko dizkiet hiruzpalau ikasleri, hor dagoen erगतiboari buruzko akatsaz kontura daitezen; batzutan, erdarazko esaldiak ere egingo dizkiet euskara ditzaten. Dena ahoz.

Idazlanetan akats gogor samarren bat somatzen dudanean, berriz, folio bat prestatuko dut gai hori ikasgelan lantzeko (ikus lantxo honen eraskin gisa «galdegaia lantzen» delako orria).

* * *

Ez dakit ezer protxuzkorik bota ote dudan uste baino luzeago atera den lerrokada honetan.

Amaitu baino lehen, dena den, zera esan nahi nuke: ikasleen idazlanak aztertzean, beste edozein lanetan bezala, ezin azpimarra daitezkeela akatsak bakarrik; onuragarria da guztiz, eta beharrezkoa, idazlanetan agertzen diren hizkuntz erabilketa polit eta egokiak ere azpimarratzea.

Eta akatsei dagokienez ere, arazoa ezin agertu zaie beltzegi –gorriegi, hobeto esan–. Ikaslea, bere orritxoan erabat gorritaturik ikusten badu, desanimatzeko arriskuan jartzen ahal bait dugu.

Bestalde, on zaio ikasleari, taxuzko idazlanak egiten ikastearen arrazoitxoak inoiz eta behin entzutea ere –titulitisaren gaixotasuna eta aspertzearen arriskua gainditzeko–: idaztea, edozein espresio bide bezala, pertsona batentzat –eta gizartearentzat– askatasun bide gerta daiteke, e.a.

3. ERASKINA: GALDEGAIA LANTZEN

Segidan multzoka banatu ditugu ariketak. Multzo bakoitzean multzoko ariketa bakoitzean sartzen diren elementuak aipatzen dira. Multzoko elementu horiekin osatu behar dira multzo bakoitzeko ariketa guztiak.

1.1.–Minik gabe erditzea da ... (zer)

1.2.–Gauza zaila ... da (zer)

- 2.1.–Haurrak ... ikasten du eskolan (noiz)
- 2.2.– ... ikasten du goizean eskolan ... (nork)
- 2.3.– ... ikasten du haurrak goizean (non)
- 2.4.–Haurrak goizean eskolan ... (zer egiten)
- 3.1.– ... bustitzen du neguan jendea (zerk)
- 3.2.– ... bustitzen du elurrak jendea (noiz)
- 3.3.– ... bustitzen du elurrak neguan (zein)
- 3.4.–Elurrak neguan jendea ... (zer egiten)
- 4.1.–Erdoilak ... jaten du pintatu ezean (zer)
- 4.2.– ... jaten du burdina pintatu ezean (zerk)
- 4.3.– ... jaten du erdoilak burdina (noiz)
- 4.4.–Erdoilak burdina pintatu ezean ... (zer egiten)
- 5.1.– ... ematen dio beldurra irakasleak (nori)
- 5.2.– ... ematen dio beldurra haurrari (nork)
- 5.3.– ... ematen dio irakasleak haurrari (zer)
- 5.4.–Haurrari beldurra irakasleak kendu ez, baizik ... (zer egiten)
- 6.1.– ... erosi dio gona gorria amari (nork)
- 6.2.– ... erosi dio aitak gona gorria (nori)
- 6.3.– ... erosi dio aitak amari (zer)
- 6.4.–Aitak amari gona gorria, josi ez, baizik ... (zer egin)
- 7.1.– ... harrapatu gaitu aurten ustekabea (zerk)
- 7.2.– ... harrapatu gaitu elurteak ustekabea (noiz)
- 7.3.– ... harrapatu gaitu elurteak aurten (nola)
- 7.4.–Ustekabea aurten elurrak, busti ez, baizik ... (zer egin)
- 8.1.– ... ibili zen atzo kalean zehar dinbili-danbala (nor)
- 8.2.– ... ibili zen mozkorra kalean zehar dinbili-danbala (noiz)
- 8.3.– ... ibili zen mozkorra atzo kalean zehar (nola)
- 8.4.–Dinbili-danbala atzo kalean zehar mozkorra... (zer egin)
- 9.1.– ... idazten ditu liburuak pozik (nork)
- 9.2.– ... idazten ditu idazleak pozik (zertzu)
- 9.3.– ... idazten ditu idazleak liburuak (nola)
- 9.4.–Idazleak liburuak pozik ... (zer egiten)
- 10.1.– ... ematen die bertsolariei bertso-saioko eginpidea (nork)
- 10.2.– ... ematen die gai-jartzaileak bertso-saioko eginpidea (nortzuri)
- 10.3.– ... ematen die gai-jartzaileak bertsolariei
- 10.4.–Gai-jartzaileak bertso-saioko eginpidea ... (zer egiten)

Dionisio Amundarain